

Kizkia taldeak gaur hasiko du bere sagardo txapelketa Gure Izarran

► Hiru kanporaketa antolatuko dira finala baino lehen

► Txapelduna hilaren 28an aukeratuko da

JUAN F. MANJARRÉS

ASTIGARRAGA. DV. Gaur bertan Kizkia taldeak martxan jarriko du bere sagardo lehiaketa. Urtero txapelketa hau antolatzen dute eta aurten finala irailaren 28an ospatuko da Gure Izarra elkartearen. Proba guztiak Astigarragako elkartearen antolatzen dituzte.

Aurten ere hogeit hamar lehiakide protagonistak izango dira txapelketan eta denak txotx garaian Kizkia taldeak bisitakoak. Urtero sagardotegi berdiak hartzen dute parte eta azken boladan beti Gure Izarra elkartearen ospatzen da. Lehendabiziko kanporaketa gaur izango da eta hurrengo astean bigarrena antolatuko da, asteazkenean. Irailaren 21ean azken kanporaketa izango da. Bakoitzean hogeit hamar lehiakideak probatuko dira.

Finalera sei sagardotegi pasako dira, kanporaketetan puntuazio altuena lortuko dutenak. Kizkia taldekoek ez dute jakingo zein sagardo edaten ari diren, denak tapatuak izango direlako, eta ez dute jakingo ere finalera pasatutako diren sagardoak zein izango diren.



Iazko partaideak Gure Izarra aurrean txapelketa amaitu eta gero. [JUANFER]

El año pasado, Lizeaga

J.F.M.

La sociedad Gure Izarra acogió también el año pasado la celebración del concurso sidrero organizado desde Kizkia Taldea, entonces en su quinta edición. En la edición pasada finalmente fue la sidrería de Astigarraga, Lizeaga, la que se llevó

el triunfo. Lizeaga sumó 131,5 puntos, con una diferencia importante con respecto a Gaztaña, que fue segundo, con 118 puntos en su casillero. Tras la sidrería de Andoain, el tercer lugar fue también para una sagardotegi del municipio, Rezola, que sumó al final del campeonato 115,56 puntos. Al igual que este año, fueron seis las sidrerías que tomaron parte en la final que tuvo lugar hace doce meses.

Sagardo baso bakoitzari puntuazio bat emango zaio. Puntuazio

handiena hamar izango da: Hiru puntu basoari, bi puntu usai-

nari eta bost zaporeari. Lehiaketako proba guztiak Astigarragako Gure Izarra elkartearen egingo dira, eguerdiko 13:30etan. Hona hemen parte hartuko duten sagardotegiak: Alberro, Elorrabi eta Otxua-enea (Hernani); Rezola, Lizeaga, Petritegi, Alorrenea, Etxeberria, Oiarbide eta Buenabentura (Astigarraga); Astiazaran eta Barkaiztegi (Donostia); Zabala (Aduna); Saizar (Usurbil); Baleio (Oartzun); Sarasola (Asteasu), Eula eta Galarraga (Urnietan); Isastegi (Tolosa); eta Gaztaña (Andoain).

Hamar herritako sagardotegiek hartuko dute parte txapelketan. Astigarragak ordezkari ugari izango ditu. ■